

# Ipuinetako pertsonaiak ezaugarritzeko komunikazio-estrategiak: irakaslearentzako gida xume ulerterraza

Lide Aizpurua\*, Udane Beaskoetxea\*, Joana Karrillo\*, Mikel Irukieta\*\*

\*Bilboko Irakasleen UE (UPV/EHU)

\*\*Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila (UPV/EHU)

Lan honetan haurrei eskolan kontakizun adierazgarriak aurkeztearen garrantzia azpimarratzen da eta horretarako kontalariak zein komunikazio-estrategia erabil ditzakeen proposatzen da. Kasu honetan, irakurketako estrategia horiek pertsonaiak ezaugarritzeko erabiliko ditugu, pertsonaien nortasunari, emozioei eta kontakizunaren kokapenari arreta eskainiz. Irakurritakoa Haur Hezkuntzako haurrei zuzenduta dagoenez, dualismoan oinarritutako sailkapenak eta horri dagozkion ipuinetako adibideak bildu dira, proposamena ulergarriago egiteko. Adibide horiek guztiak oinarritzat erabiliko dira erakusteko nola hobetu daitekeen irakurketa ozen esanguratsua. Pertsonaiak ezaugarritzeko estrategien inbentario bat proposatu dugu eta horiek baliatzeko eta planifikatzeko markaketa-sistema bat.

GAKO-HITZAK: Komunikazio-estrategiak · Ipuinak · Irakaslearen eginkizuna · Intentzozko irakurketa ozena.

## Story characters characterization by means of communicative strategies: a simple but comprehensive guide for teachers

The aim of this work is to emphasise the importance of reading aloud stories meaningfully to preschool children in school and, to do this, we suggest some communicative strategies for teachers. We use those reading strategies to characterize characters, underlying their identity, emotions and also their location in the narration. As reading aloud is aimed to preschool children, we collect examples from different stories and classify them based on opposing characters, in order to make this proposal more simple but comprehensible. Each example provide us with different skills to improve our techniques for reading aloud meaningfully. We also propose an inventory of strategies to characterize story characters and a marking system to plan the reading aloud sessions and to show how these strategies can be used with different characters.

KEY WORDS: Communicative strategies · Stories · Teaching activity · Intentional read aloud.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.107.2018.3>

*Jasotze data:* 2017-12-07

*Onartze data:* 2018-05-23

## 1. Sarrera

Ipuinak Haur Hezkuntzan erabiltzea eta kontatzea oso garrantzitsua da, umeei nortasun ezberdineko pertsonaiak erakusteko, besteak beste. Era horretan, aukera ematen zaio haurrari 237/2015 DEKRETUAN<sup>1</sup> jasotako oinarritzko zehar-kompetentziak lantzeko. Ahozkotasunean oinarritutako kontakizun horiek aberasgarriak izan daitezzen, komeni da kontalariak komunikazio-estrategiak<sup>2</sup> modu egokian erabiltzea eta pertsonaien izaera ezberdinak erakustea eskolan. Ipuin kontaketa tarte izan daiteke CD bat jartzea edo irakurketa ozen hutsa egitea (hala izaten da sarri askotan, tamalez<sup>3</sup>), baina irakurketa ozen horrekin haurraren garapen emozional/globala eta komunikazio-gaitasuna garatzea bada helburua, irakurketa balio pragmatikoz janzteko estrategiak erabil daitezke.

Ipuin-kontaktetan, gure ustez, irakurketaren balio pragmatikoak erakusten du haustura kognitiboa (Escandell, 1996) dagoela hizkuntzaren ohiko funtzionamendua arautzen duten printzipioekiko, bai formari baita edukiei dagokienez ere. Haustura kognitibo horrek arauak eman ezin dion efektua sortzen du komunikazioan, baita ipuin-kontaktetan ere. Printzipioen haustura horri balio pragmatiko esango diogu, hizkuntza-forma baten erabilera zehatzak komunikazioa aberasten duenean eta hori sozialki onargarria denean. Ipuina era esanguratsuan irakurtzea balio pragmatikoa erabiliz egiten da, besteak beste. Pragmatikak hizkuntza-forma zehatzetan, esaldiaren ekoizpeneko eta adierazpeneko testuinguru anitzetan eragiten du, hots, komunikazio-egoeretan (Herrero, 2006) eta egoera horien artean hiztunak egiten duen hizkuntzaren erabileran. Pragmatikak komunikazio-egoeraren alderdi estralinguistikoak ere aztertzen ditu: igorlea, hartzailea, komunikazio-asmoa, berbazko testuingurua eta munduaren ezagutza (Escandell, 1996).

Esatebaterako, intentziorako irakurketa ozeneko zenbaitezagarrinabarmentzeko, Garcia-Arriolak eta Iruksietak (2016) balio linguistikoaren eta balio pragmatikoaren baliagarritasunaren berri ematen dute. Balio pragmatikoarekin irakurraldiari intentziora jar dakioko; testuko pasarteak ezberdinduz, nabarmenduz edo lausotuz, erritmoa emanez edo kenduz, ahoskerari nortasun bat edo beste emanez.

Lan horrez gain, aipatzekoa da Eizagirreraren (2015) lana ere. Bertan azaltzen eta proposatzen da balio pragmatikodun irakurketa egiteko intonazioa eta enfasia nola erabili.

Bestalde, Morenok (2007) hunkipenezko irakurketaren garrantzia azpimarratzen du: «Ahoskatzen dugun hitzak ez badigu barruan zirrarak egiten, ez badu gugan oroitzen eta irudien multzo bat eragiten, irakurketaren promesa ez da gauzatuko» (Moreno, 2007: 8). Helburu hori lortzeko irakurleari ahotsarekin jolasteko jarduerak proposatzen dizkio, modu implizituan; besteak beste, arnasketarekin, intentsitatearekin edo erritmoarekin. Interesgarria dateke, gure ustez, irakurketa

1. 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum ahozko zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

2. Gure lanean komunikazio-estrategia esango diogu ipuineko gertakarien eta pertsonaien sentimendua eta izaera hobeto kontatzeko eta adierazteko planari.

3. Edonola ere badaude, Haur Hezkuntzarako baliagarriak diren webguneak. Guretzat ereduagarriak direnak aipatzearren: <[www.txirritx.eus/](http://www.txirritx.eus/)>, <<http://amarauna.org/nabar>> eta <<http://www.aittu.net/>>, besteak beste.

horiek modu esplizituan nola egin daitezkeen argitzea; hartara, baliabide bakoitza efektu zehatz bat lortzeko nola erabili jakiterik izango genuke.

Honako lan hau aipatutako hiru lan horien osagarri da, baina lan honetan, ordea, ipuinetako pertsonaiak nola ezaugarritu aztertu dugu aipatutako lanetako azalpen teorikoak esplizitu eginez eta adierazitako baliabideak kasu zehatz batzuetan nola erabil daitezkeen proposatuz. Horretarako, baliabideen irakurketa errazteko markaketa-sistema grafiko bat erabili dugu eta adibideen inbentario mugatu bat.

Izan ere, ipuinak kontatzean, pertsonaien izaera oso garrantzitsua da eta sarri askotan izateko era hori ipuineko ekintzarekin lotua egoten da; beraz, haurrei kontakizun aberasgarria aurkeztu ahal izateko, gomendagarria da estrategia horiek ipuinetan agertzen diren pertsonaien izaerarekin bat etortzea. Argi izan behar da horretarako, pertsonaia nor den eta zer itxura duen; pertsonaia horiek ez baitira tresna huts, baizik eta bizirik dauden eta unibertso propioa duten pertsonak (Añorga, 2006). Hortaz, irakaslea pertsonaien ezaugarriez baliatuko da haurrei emoziozko eta irudimenezko unibertso bat aurkezteko. Horrenbestez, irakurri aurretik hobe da pertsonaia ezagutzea, haren ezaugarriak eta haren balizko adierazpideak aztertzea, betiere gehiegikerietan hasi gabe (Moreno, 2007).

Azken finean, pertsonaiak eta horien ekintzek gorpuzten dute ipuina eta horiexek dira haurrak hunkitzen dituztenak, irakurleak estrategiak egokiro erabiltzen dituenak. Morenoren (2007) aburuz, hunkiberatasuna eta sentimendua, biak, oso garrantzitsuak dira testuetara positiboki hurbiltzeko; hunkipenik gabe ezin da irakurketa esanguratsurik egon. Sortutako emozio horiekin hizkuntzarekin lotura afektiboa eraikitzen da (Igerabide, 2007) eta hizkuntzako komunikazio-estrategia ezberdinak erabiltzeko gogoia pizten bazaie haurrei, pentsamenduekin nahiz emozioekin jolasteko eta ezagutza eraikitzeko beste aukera bat emango zaie. Igerabideren (2007) ustez, hizkuntza bereganatu ahal izateko, haurrek gai izan behar dute euren sentimendu eta pentsamenduei hitza jartzeko, eta horretarako ipuin-kontakteta nahiz literatura bide egokiak izan daitezke.

Lan hori egiteko, uste dugu beharrezkoa dela ipuin ezberdinak irakurtzea, komunikazio-estrategiak ezagutzea eta estrategia horiek bai norbere egitea, bai egokiro erabiltzea. Adibidez, ume batek egonaria zer den jakiteko eta sentitzen ikasteko, aurrez ipuinean entzundakoa edo sentitutakoa oroitu eta komunikazio-estrategiarekin erakutsitakoa imitatzen saiatuko da aurpegiarekin edota ahotsarekin. Horrela ekar dezake haurrak sentimendu hori eguneroko egoerara, baldin eta irakurleak sentimendu hori modu egokian erabili badu eta betiere kasuan kasuko pertsonaiaren emozioa komunikatzea lortzen badu. Horrez gain, Haur Hezkuntzan antzerkiak ere egiten dira eta zenbait komunikazio-estrategia antzeztu ditzakete ikasleek, emozioekin jolasteko eta horiek neurri batean kontrolatzeko.

Narratzailearen eta beste pertsonaien ahotsa aurkeztean, komenigarria da ipuinen irakurketan irakasleak pertsonaien ahots ezberdinak erabiltzea. Horrez gain, kontuan hartu behar ditu pertsonaia horien guztien nortasuna, egoerak eta kontakizunean betetzen duen tokia edo espazioa ere. Erabilgarri ditu, horretarako, ahotsak, dramatizazioa eta keinuak. Horrekin guztiarekin, haurrak ipuinarekin disfrutatu, komunikaziorako tresnak bereganatu eta norbere bizitzan komunikazio-

estrategiak egoeraren arabera egokitzen ikasi ahal izango du. Amestoyren eta Martinezen (1992) lanean, adibidez, estrategia horien erabilera argia egiten da; kontakizuna kokatuz entzulea ere istoriora dakarte eta ipuinari erritmoa, intentsitatea eta intonazio ezberdinak emanez istorioa bizitzeko aukera dute haurrek.

Irakurketa ozenaren ezaugarriei dagokienez, lan ugari egin da —horien artean aipagarri da Gaminde *et al.* (2014) lana—, baina guk dakigula behintzat pertsonaiak ezaugarritzeko balio pragmatikoez ez dago azterketa sistematikorik, batez ere, ipuin bereko pertsonaien izaera irudikatzeke orduan<sup>4</sup>. Horren ondorioetako bat da irakasleok prestakuntza gutxi dugula komunikazio-estrategiak erabiltzean. Hortaz, arlo horri dagokionez, hutsunea ikusten dugu ikastetxeetan. Hutsune hori betetzeko eta pertsonaiak ezaugarritzeko erabil daitezkeen komunikazio-estrategiak erakusteko helburua du gure artikulu honek, hein batean. Hori hobetzeko praktikan jartzeko moduko gidatzea proposatu dugu.

Lanaren 2. atalean estrategiak markatzeko metodologia bat proposatu dugu eta 3. atalean pertsonaien izaera ezaugarritzeko erabil daitezkeen estrategia batzuk jaso ditugu. Hau da, inbentario bat sortu dugu. Bertan kasu bakoitza azaldu dugu eta estrategia horren adibide esanguratsuak bildu ditugu. Bukatzeko, laugarren atalean lanaren ideia nagusiak nabarmendu eta etorkizuneko lanak proposatu ditugu.

## 2. Metodologia

Lan honetan ipuinetan pertsonaia ezberdinak, horien izaera eta bizi dituzten emozioak identifikatzen eta haien kokapena irudikatzen laguntzen duten komunikazio-estrategia batzuk hautatu ditugu. Gainera, praktikan jartzeko moduan, kontalariak horiek nola adierazi behar dituen jakiteko erreferentziak izan ditzaizkiz, ipuinerako markaketa grafikoa proposatu dugu.

Markaketa horren bidez pertsonaiak ezaugarritzeko oinarritzkoenak diren baliabideak hartu ditugu kontuan, irakurketa esanguratsua egiteko: bolumena, azentua, etenak, abiadura edota intonazioa, besteak beste. Baliabide horiek erabiliko ditugu efektu<sup>5</sup> zehatz batzuk lortzeko.

Kontuan izan behar dugu lan honetan Haur Hezkuntzako umeei irakurtzeko proposamena egin nahi dugula eta zenbait estrategia adin horretara egokituko ditugula (beharbada batzuk baliagarriak izan daitezke beste adin-tarte batzuetan ere). Hori dela-eta, pertsonaien izaera eta horiek bizi dituzten emozioen kasuan, dualismoan<sup>6</sup> oinarritu gara, ezaugarri eta emozioak bereizteko. Dualismo<sup>7</sup> horrek lagunduko digu

4. Mirri pailazoa ezaugarritzeko euskal tradizioetik hartutako bustidura desegokiak eta txistukariak modu sistematikoan erabiltzen ziren (Ansorena, 2010).

5. Kasu honetan, entzuleengan sortu nahi den eragin emozionala lortuko genuke, irakurleak alde zuretik zehaztuta dituen helburuen araberakoa.

6. Dualismoa da aztergaia edo pertsonaia motak bitan eta aurkakoetan banatzeko irizpidea.

7. Lan honetan pertsonaien izaera eta bizi dituzten emozioak aztertzeke orduan, dualismoan oinarritzea eztabaidagarria izan daiteke. Baina dualismoan oinarritzea erabaki dugu pertsonaiak modu sinplean aurkezteke, muturreko izaeradun pertsonaiak nolabait erakusteko. Horrela, muturretan erortzen ez diren izaera eta emozio horiek lan honetatik at utzi ditugu. Hala ere, estrategia hauek (edo beste batzuk) nahasiz pertsonaia aberats eta konplexuak egin daitezke; izan ere, jakin badakigu itxura eta izaera jendarteak edota kulturak ezaugarritzen dituela eta ez datozela beti bat errealitatearekin.

aukeratutako pertsonaien eta bizi dituzten emozioen artean bereizketa garbia egiten. Horrela, komunikazio-estrategiak argiago azaldu daitezke eta irakurleari duen helburu zehatza betetzen lagunduko dio, hau da, entzulearengan efektu zehatz bat sortzea.

Gure komunikazio-estrategien inbentarioa antolatzeko orduan, honakoak hartu ditugu kontuan: pertsonaien izaera, horiek bizi dituzten emozioak eta haien kokapena eszenan.

Jarraitu dugun metodologiari sarrera egin ondoren, markaketa-sistemaren proposamena nola egin dugun azalduko dugu honako atal honetan.

## 2.1. Markaketa-sistema

Proposatu dugun markaketa-sistema grafikoa da, hots, testuan bertan ikurrekin eta bestelakoekin egin dugu. Markaketa hori komunikazio eraginkorra lortzeko (testua prestatzeko eta prestatutakoa irakurri ahala gogorarazteko) egin dugu. Horretarako, baliabide bakoitzari ikur bat edota azalpena ezarri diogu.









Hasteko, irakurketa ozenaren estrategiak markatzeko ibili ditugun ikurrak 1. taulan aurkeztutakoak dira:

**1. taula. Irakurketa ozenaren estrategiak.**

Baliabidea	Ikurra	Esanahia
Bolumena	A (letra larria)	Bolumen altua
	a (letra xehea)	Bolumen normala edo baxua
Azentua	á (azentuarekin)	Silaba horretan azentua
Etenak	/	Eten laburra
	//	Eten luzea
Abiadura	a-a	Abiadura motela (silaba artean dagoenean, silaba moztea dakar)
	a_a	Abiadura azkarra
Intonazioa	↗	Intonazioa gora
	↘	Intonazioa behera
	↔	Intonazioa gora-behera-gora
Lapsusak		* Ez dauka ikur finkorik. Adierazi nahi den moduan idatziko da.
Ahoskera		Kasuan kasuko pertsonaia identifikatzeko fonemen ordezkapena. Irakurriko den bezala idatzi, ordezkatuta.

Bestalde, pertsonaiek sentitzen dituzten emozioak<sup>8</sup> interpretatzeko keinuak markatzeko ikurrak ere zehaztu ditugu:

## 2. taula. Emozioak adierazteko taula.

Emozioa	Ikurra	Keinua
Poza		Irribarrea
		Barrea
Haserrea		Hortzak estututa eta bekokia ilun (Guillén eta Mateo, 1994)
Tristura		Bekainak zimurtu gora eta ahoa behera (Gaminde, 2007)
		Negarra
Harridura		Begiak eta ahoa zabalik
Beldurra		Bekainak zimurtu goraka
Emoziorik eza		Narratzailearentzat kasuistikaren arabera

Keinuak ere adierazi ditugu entzulea kontakizunean kokatzeko, baina kasu honetan parentesi zuzenen «[ ]» artean jasoko dugu keinu horren azalpena, (1) adibidean bezala:

- (1) 😊 PRI-MÉ-RAN!ʹ — 😞 dio Erramunekʹ. Masta\_gaiÑeko\_behatokira\_igota,ʹ/  
[eskua bekokian] LAKÚ osoaʹ ZAINTZEN duʹ. Eguneroko zeregiÑa duʹ.  
(Schubert eta Schubert, 2007)

Adibide horretan, *primeran* hitza pozik 😊 esango da eta silabaz silaba (silabarteko marratxoarengatik) astiro eta ozen (letra larriz baitago), intonazioa gorantz bukatuz. Narratzaileak aurpegi neutroarekin osatuko du esaldia erritmo arruntarekin, Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua (aurrerantzean, EBAZ)<sup>9</sup> errespetatuz i+n

8. Jasotako emozioak oinarritzen dira Sauter eta kideek (2010) definitzen dituzten oinarritzko emozioetan. Hala ere, gure kasuan *nazka* emozioa inbentariotik kanpo utzi dugu.

9. Gure adibideetan erdialdeko euskalkiari dagozkion EBAZ arauak erabili ditugu markaketa-sistema bat proposatzeko. Mendebaldeko euskalkian markatu eta irakurri nahi duen irakasleak bestelako kutsurik eman nahiko ez balio, gure proposamena da bere euskalkiko ahoskera erabiltzea eta guk hitz mugan n eta z, l eta z etab. dauden kasuetan afrikatua erabili ordez, igurzkaria erabil dezake. EBAZek horrela egitea ere ahalbidetzen du. Bestalde, gauza bera gertatzen da IN bustidurarekin. Irakaslearen euskalkiaren eta eman nahi zaion kutsuaren arabera irakurriko du hori ere: bustidurarik gabe (IN) ala bustidurarekin (IÑ).

= iñ-ren kasuan (*gaiÑeko*) eta keinu bat eginez [*eskua bekokian*], ondoren *laku* ozen esanez eta azentua silaba azkenean jarriz, besteak beste. Horrez gain, hizki zehatzen baten ahoskera arrunta aldatuz gero, kakotxen (“ ”) artean idatziko dugu ondorengo adibideetan.

Adibideetan irakurleak prestatu beharreko estrategia guztiak markatu baditugu ere, komenigarria iruditzen zaigu fenomeno ezberdinak lantzea irakurraldi bakoitzean eta horretarako markaketa gero eta konplexuago egitea. Behin testua eta estrategiak ezagututa, testu garbia ere erabil daiteke irakurketarako, markaketak irakurgarritasuna oztopatu eta etorrian eragin baitezake.

### 3. Estrategien inbentarioa

Atal honetan erakutsiko dugu pertsonaien izaera eta emozioak nola ezaugarritu irakurtzean (aurreko ataleko tauletan jasotako markaketaren erabileraren adibideak), baita pertsonaiak eszenako leku ezberdinetan nola erakutsi ere.

#### 3.1. Pertsonaien izaera ezaugarritzeko estrategiak

Pertsonaien izaera ezaugarritzeko komunikazio-estrategien adibideak jasoko ditugu azpiatal honetan. Estrategia horiek aurretiaz aipatutako dualismoaren ereduari jarraitzen diote Haur Hezkuntzako umeei sinpletasunez eta argitasunez aurkezteko:

##### 3.1.1. Pertsonaia zintzoak eta gaiztoak

Pertsonaia zintzoa dela adieraz daiteke (2) adibidean pertsonaia sentimendu zintzoz dabilelako. Hori erakusteko, erritmo geldoarekin eta homogeenarekin irakurriko dugu irakurketa ozeneko balio linguistikoak (Garcia-Arriola eta Iruskietak, 2016) errespetatuz, hitz arteko (edo sintagma arteko, kasuan kasu) etenak egingo ditugu pertsonaiaren erantzunean eta ez hitza, testuan behin agertzen dena, errepikatuko dugu zintzotasuna nabarmentzeko.

(2) —Hauxe al da zure aizkora? —galdetu zion.

☹ Ez, ez, ez // hau / ezTa \- ☹ erantzunTzuen egurgilLeak,<sup>10</sup> zintzotasun osoz. (Susaeta, 2012)

Pertsonaia gaiztoak (3) adibidean esandakoa ahots sudurkaria eta karraskaria erabiliz irakurriko da. Horrez gain, ahoskera arrotzarekin jolastuko dugu, euskarazko soinu igurzari ahostunak ez direnak eginez, erakusteko etxekoa ez dela. Beste aukera bat izan daiteke intonazioan gorabeherak egitea hitz berean edo silaba berean (desoreka erakutsiz), erakusteko pertsonaia hori ezegonkorra eta fidagaitza dela, arrotza.

---

10. Transkripzioaren ulergarritasuna zabaldu nahian, ez diogu Nazioarteko Alfabeto Fonetikoari jarraitu.

- (3) 😞 Hala, neskatxa etxean bakarrik zegoen batean, deabru bat joanTzizaion, ate joka:

😊 —Dar-dar-dar! —egitenTzuen atea—. Éman~ éZkukó~ hatZ pótoloá~!  
(Igerabide, 2007)

### 3.1.2. Pertsonaia zaharrak eta umeak

Adineko pertsonaia denean, (4) adibidean bezala, ezaugarritzeko ahots urratua eta erritmo geldoa erabiliko da eta hori gehiago nabarmentzeko, hortz bako pertsona batek bezala hitz egingo du<sup>11</sup>. Horretarako, hortz artean arkatz bat sartu eta arkatza erori gabe hitz egin daiteke. Kontsonanteen ebakera berezi horrekin hortz gabeko pertsonaiak imitatu daitezke. Horrez gain, etenak hitz artean eta neke itxurak eginez pertsona zaharra imitatzen da.

- (4) 😊 **[bizarra igurtziz]** PIRA “TH”A nintzen GARAIOA’ “d”a, noski\.  
MUN“DH”UARI BIRA’ eman nion\./ A-BEN“TH”U-RA-ZA’LE amorra”th”ua’ izan  
naiz be”th”i\ (Schubert eta Schubert, 2007)

Umea, aldiz, (5) adibidean bustidurekin eta txistukariekin ezaugarrituko dugu, umeen hizkuntzatik gertuago egoteko<sup>12</sup>. Haurren hizkera ezaugarritzeko erritmo bizkorra eta ahots agudoa erabiliko ditugu:

- (5) [eskua aho ondoan: deika] 😊 AMONATXOooooo, // Txanogorritxo naiX! //  
Etxean al-Xau-de? (Almagro eta Mardones, 2012)

Tarteko adinetako pertsonaiak modu arruntean eta arauari jarraituz egin daitezke.

### 3.1.3. Pertsonaia boteretsuak eta menpekoak

Pertsonaia boteretsuak ahotsa lodituz (sabeletik arnasa hartuz) eta erritmo geldoz ezaugarrituko ditugu<sup>13</sup>. Ikus (6) adibidea.

- (6) Eta jakintsuek euliei dei eginTzieten, eta erregeak AHOTS LODIZ hitz eginTzien:

😞 Mundu guztiak badaki’//’ euliak usainen lagunak direla// eta ezagutzen dituztela KHA...// KHA... kasik guztiak. INORK EZTU ZALANTZAN JARRIKO ZUEN HITZA! (Olmos eta Livan, 2013)

---


11. Adineko pertsonak ezaugarritzeko horzkariak (/d/ eta /t/) ahulduko ditugu, hortzak ezpaineekin estaliz. Horrela irakurtzeak txistukarien ahoskera arrunta ere aldaraziko du.

12. Ansorenak (2010) Mirriren pertsonaiari ezaugarri horiek ezarri zizkion.

13. Pertsona boteretsuak ezaugarritzeko zizipaza egin daiteke txistukari guztiak, edo s txistukari apikal-hobikaria z txistukari bizkarkari-hobikaria egin.



Menpekoek, aldiz, (7) adibidean bezala, ahots finarekin, urduri eta beldurrez hitz egin ohi diote boteretsuari. Hortaz, ahots dardartia eta lapsusak erabiliko dituzte, eta bolumena, aldiz, baxua izango da.

- (7)  —Ma<sup>ma ma</sup> ma ma iestatea,<sup>//</sup> ze<sup>ze</sup> ra aurkitu dugu atearen aurrean: // Pastel bat... KHA... (Olmos eta Livan, 2013)

#### 3.1.4. Adimen-maila baxuko (leloa) eta altuko (jakintsua) pertsonaiak

Adimen-maila baxuko pertsonaien ezaugarri nagusizat hitzetako zenbait hizki ordezkatzuz (/s/ eta /z/ fonemen ordezkatzuz /t/) irakurtzea proposatzen dugu, (8) adibidean pertsonaia horrek duen ezintasuna erakusteko.

- (8) ET, ama, eTut halakorik berriT egingo. Teuk eTandakoa beterik eTut hemendik aurrera egingo. Buru gainean ipiniko dut hurrengoan. (Sarrionandia, 2008)

Adimen-maila altuko pertsonaiak adierazteko, (9) adibidean, pertsonaia bera seguru dagoela erakusteko aldatuko du ahotsa, solemneago egiteko. Oro har, zuzentasun handiz hitz egingo du EBAZi jarraituz eta horretarako ondo ahoskatuko ditu s, x eta z hizkiak bereiziz eta agian apur bat esajeratuz ere bai.

- (9) Erbiak, orduan, hauxe proposatu zion:

MIN egidazu oin batean,<sup>/</sup> eta erakutsiko dizut<sup>z/</sup> GE-ZU-RRAK<sup>/:</sup> MIN HAN-DI-A-GO-A<sup>z</sup> ematen duela. (Olmos eta Livan, 2013)

#### 3.1.5. Jatorri atzeritarra eta bertakoa duten pertsonaiak

Gartziaren (2013) *Aladino* ipuinaren bertsioetik ateratako (10) adibidean jainua txinatarra<sup>14</sup> da eta, hortaz, jatorri horretako pertsonen ahoskera ezaugarritzen duen / hotsarekin ordezkatzuko ditugu r eta rr hotsak. Jatorriaren arabera, hots horiek aldatuko dira, esaterako, frantsesari g *nigetzat* esanaraziko diogu r hotsaren ordezkari, edo errusiarrari *R<sup>15</sup> niRetzat* eta anglosaxoiari *w niwetzat*, besteak beste.

- (10) Zuen nahiak AGINDU<sup>z</sup> diLa niLetzat, LanpaLako JEINUA bainaiz zuentzat. (Gartzia, 2013)

Jatorri euskalduna duten pertsonaiek EBAZeko arauak osotasunean betetzea proposatzen dugu. Edonola ere, kontuan izan behar dugu EBAZek ere euskalkien zenbait ezberdintasun onartzen dituela eta hori ere baliatu daitekeela, hurbiltasun-efektua lortzeko. Adibidez, entzuleak bizkaitarrak badira, bizkaieraz hitz egiten duten pertsonaiekin.

Kasu honetan (11) adibidean EBAZi jarraitu eta euskara baturako proposatu den azentu bikoitzaren sistema (+2-1) erabiliko dugu<sup>16</sup>.

14. Jatorri bakoitza ezaugarritzen duten fonemak erabiliko dira.

15. /r/ anizkuna baino gogorragoa oraindik.

16. Adibide honetan bordako jabea mespretxuz ari zaio mutikoari, eta hori dela-eta, ahots marranta erabili eta adierazitako keinua egingo du.

- (11) [zeharka begiraturz] Bordá HONETÁN lan egín NAHI BADUZÚ', ARDÍEN ARTEÁN' lo egín dezákezú. (Irusta, 2014)

### 3.1.6. Emakumeak eta gizonak

Emakumeak ezaugarritzeko, ahots agudoz ahoskatuz irakurriko dugu<sup>17</sup>.

Gizonezkoen kasuan, ahots lodi eta grabea erabiliz irakurriko dugu.

## 3.2. Emozioak ezaugarritzeko estrategiak

Dualismoan oinarritutako pertsonaien izaera ezaugarritzen bukatu ostean, pertsonaia horiek ipuinean zehar emozioak dituztela adierazteko komunikazio-estrategia ezberdinak proposatzen ditugu<sup>18</sup>:

### 3.2.1. Harrotasuna eta lotsa<sup>19</sup>

Pertsonaia hau (12) adibidean handikia eta harroa da. Handikia dela erakusteko bolumen altua erabili da eta jabetza edo agindua nabarmentzeko etenak erabili dira.

- (12) NIREAN // EZTAGO // ALFERRENTZAKO LEKURIK- erantzunTzuen erregeak, eta Txomin ipurdi kexuka zebilela ikusirik, oLLategira eramanTzetazela agindu zuen. (Arratibel *et al.*, 2001)

Eta (13) adibidean beste ipuin bateko pertsonaia, ordea, lotsatia da eta hori ezaugarritzeko erritmo motela eta bolumen baxua erabiliko ditugu, irudikatzeko esan behar duena etengabe pentsatzen duela. Gainera, zalantza eta urduritasuna adierazteko lapsusak edo berregiteak ere erabiliko dira.

- (13) 😞 [burua behera] PA'UL' dut i'ze-na', e-ta' [sorbaldak gora] E E'E-ZIN' na- iz JAI'TSI'. (Schubert eta Schubert, 2007)

### 3.2.2. Alaitasuna eta tristura

Alaitasuna adierazteko, (14) adibidean bezala, abiadura azkartuz, bolumena igoz eta irribarrearekin irakurriko dugu.

- (14) 😊 IZUGARRI\_GUSTATZEN\_ZAIT / ITSASOA'! —esan du Kamilek, gurasoekin batera hondartzara heldu denean. (Delvaux, 2013)

Tristura<sup>20</sup> ezaugarritzeko (15) adibidean bolumen baxua, abiadura geldoa eta beheranzko intonazioa erabiliko ditugu, energia falta erakusteko. Gainera, burua behean eta tristuraren keinua eginez irakurriko dugu.

17. Bestela, ahots lodi eta urratuaz, erretzaile sutsua den emakumea irudikatzeko.

18. Pertsonaia batzuen izaera emozio zehatz batek definitu dezake eta, ondorioz, narrazio guztian zehar emozio horri dagozkion komunikazio-estrategiak aplikatuko zaizkio.

19. Ikus (1) adibidea.

20. Anaia txikiaren jaiotza dela-eta, triste dago pertsonaia.

(15) Batzuetan, gauetan, Kamile pentsakor gelditzen da.

— 😞 Kon-tu-ratzen-Tza-ra<sup>h</sup>, hartz txi-ki<sup>h</sup>? A-na-ia txi-ki-a i-zan-go dut.<sup>h</sup> E-ta ez-Ta-  
kit zi-ur gus-ta-tu-ko zai-dan.<sup>h</sup> (Delvaux, 2013)

### 3.2.3. Beldurra eta ausardia

Beldurra ezaugarritzeko (16) adibidean abiadura neutroa, lapsusak eta bolumen baxua<sup>21</sup> erabiliko ditugu. Hori guztia urduritasuna adierazteko izango da.

(16) 😞 [atzamarra ahoan] Txissss, txissss... —xuxurlatu<sup>r</sup> du Willik—. Uste dut//  
mu<sup>mu</sup> mu<sup>mu</sup> nstro bat dagoela ni<sup>ni</sup> re ohe azpian. (Glitz eta Sönnichsen, 2005)

Ausardia ezaugarritzeko (17) adibidean bolumen altua erabiliko dugu eta hitzen bukaerak pixka bat luzatuko ditugu. Gainera, zalantza izpirik gabe, erabakitasunez mintzatuko da pertsonaia.

(17) 😊 Gaurrr<sup>r</sup> BANOAAA MUNDUAAA IKUSTERAAA<sup>r</sup>. GAUZAAA BERRIAAAK<sup>r</sup>  
ikusi nahi ditut<sup>h</sup>.

Lagunak esanTzion:

Zoratuta alTzaude? Hemen jatekoa baduzu eta gainera seguru bizi zara.  
(Susaeta, 2012)

### 3.2.4. Haserrea eta alaitasuna

Haserrea ezaugarritzeko (18) adibidean hortzak estutuz eta ahoa gutxi irekiz, ezpainak eta aurpegia asko mugituz eta energiarekin irakurriko dugu. Gainera, bekoki iluna eta haserrearen keinua eginez irakurriko dugu.

(18) Jaitsi zen Manex, eta atsoek: — 😞 ZURE ERRUA<sup>r</sup> DA<sup>r</sup> erritmoa\_galdu\_izana!  
ZAUDE\_pixka\_batean! (Méndez, 2001)

Bestalde, (19) adibidean alaitasuna ezaugarritzeko energiarekin eta irribarretsu irakurriko dugu, baita tarteko barre-arnasa moduekin ere.

(19) Banekien une zoragarriak igaroko genituela elkarrekin. (Van den Abeele eta Dubois, 2009)

### 3.2.5. Urduritasuna eta lasaitasuna


Urduritasuna ezaugarritzeko (20) adibidean lehenengo silabak berregin eta erritmo azkarra erabiliko dugu, baita ondo ahoskatu gabeko hitzak ere.

---

21. Kasu honetan bolumen baxua erabiliko da testuak berak haurra xuxurlatzen dagoela esaten duelako, baina bestelako kasu batzuetan beldurra adierazteko bolumen altua erabiliko da, oihuekin eta urduritasunarekin nahastuz.


(20) Ia zubiaren erdian zebilela, ogroa agertu zen:

—Nor dabil tipi-tapaka nire zubian?


—  A<sup>A</sup> antxume<sub>bi</sub><sup>bi</sup>zardun<sub>txi</sub><sup>txi</sup> kia. (González eta Fernández, 2003)

Lasaitasuna ezaugarritzeko (21) adibidea abiadura motelean eta erabakitasunez irakurriko dugu, sintagma bukaerako soinua luzatuz.

(21) Eta biak jo eta su hasi dira egurra moztzen eta iltzeak sartzen; azkenean, Paulek oihala altxatu du ontzian. Erramun zurbil dago.

—  ZER<sup>?</sup> duzu<sup>\</sup>, Erramun<sup>?</sup>, ITSASOKO GAITZA<sup>?</sup>

—Ez —erantzun dio Erramunek—, hori baino askoz ere larriagoa da.

—  Ez-Ta<sup>?</sup> hain beste-ra-ko izango<sup>\</sup>. KONTA<sup>?</sup> iezadazu<sup>\</sup> (Schubert eta Schubert, 2007)

### 3.3. Eszena eta kokapena ezaugarritzeko estrategiak

Emozioekin bukatuta, kontatzen ari garena erakusteko eta ikus-entzuleak kontaktari jarraitzeko helburuarekin, pertsonaiak eszenako toki ezberdinetan kokatzeko eta narratzailea eta pertsonaiak ezberdintzeko estrategiak eta horien markaketa azaltzeari ekingo diogu atal honetan.

#### 3.3.1. Intonazioa eta espazioa

Batetik, intonazioarekin narratzaileak pertsonaia baten mugimendua leku ezberdinetan koka dezake: goian eta behean. (22) adibidean bereziki nabarmenduko da intonazioaren marka duen pasartea eta pertsonaiak egiten dituen gorabeherak intonazioarekin egingo dira. Horrela, pertsonaia eta istorioa eszenan bertan non dauden erakusten da eta entzuleari kontakizuna jarraitzeko aukera ematen zaio.

(22) Eta holako indar honek mutil gaztea hartu eta ximiÑia<sup>22</sup> ziLLotik goiti botatzen du, goiti eramaten laÑoaren gaÑera, eta laÑoaren gaÑetik jausten da sasiaren azpira eta sasiaren azpitik goiti berriz, goiti, <sup>?</sup> goiti, <sup>?</sup> behiti, <sup>\</sup> behiti, <sup>\</sup> goiti, <sup>?</sup> egiten du bidea eta heltzen da akelarrera! (Amestoy eta Martinez, 1992)

Bestetik, eszenaren ezkerraldera eta eskuinaldera bideratu daiteke begirada pertsonaia onak eta gaiztoak bereizteko, eta kontakizuna hurbil edo urrun dagoen adieraz daiteke ahotsa inpostatuz. Esaterako, hurrengo adibide honetan ahotsa behetik hasi eta zeruan jartzen du Amestoyk. Zeruan dagoela ahotsa apur bat bortxatu daiteke heldu nahi dugula baina ezin dugula adierazteko.

---

22. Amestoyk eta Martinezek (1992) euren lanean Ñ-ren ordeaz /N erabiltzen dute, iparraldeko hizkera darabiltelako. Gure moldaketa EBAZera egokituta dago.

(23) Eta honek polliki-polliki abiada hartu du. Eta igo da zeruan, gero eta gorago, gero eta gorago. Buelbaka, biraka, goiti, goiti, igan, igo, hor eta gairdian hantxe zeruko ixiltasunean entzuten da. (Amestoy eta Martinez, 1992)

Bestalde, plano horizontalean urruntasuna adierazteko, ahotsa entzulea dagoena baino harago proiektatuko da, (24) adibidean bezala.

(24) Hartz Handi, salba nazazu!

Lagundu, arren! (Waddel eta Firth, 1999)

### 3.3.2. *Keinuak eta espazioa*

Pertsonaiak keinuak eginez (baina entzuleei begirada luzaro kendu gabe) espazioa irudika eta kokatu dezake. Keinuen bidez espazioan kokatzeko estrategia hori (25) adibidean jasota dago.

(25) **[gora begiratu]** Aizu, Jirafa, Ez duzu ezer ikusten handik goitik?

**[gora begiratu]** Ez dut ezer ikusten. Gauaren iluna, besterik ez. (Jadoul, 2011)

Markaketa, esan bezala, parentesi zuzenen artean egin dugu eta aurreko adibidean gora begiratzeko keinuak entzulea kontakizuneko espazio zabal horretan sartzen du.

### 3.3.3. *Erakusleak eta espazioa*

Narratzaileak lehenengo graduko *hau* erakuslea eta bigarren graduko *hori* erakusleak erabiltzeak, zenbait keinurekin batera, entzuleari erakutsiko dio istorioa espazio hurbilean kokatzen dela, hemen eta hor; hain zuzen ere, entzulea dagoen espazio berean. Horrela, kontaketa entzulearengandik hurbilago dago.

Esaterako, (26) adibidean, narratzailea ez da ari edozein morroiz edo ethez. Narratzaile horrek entzulea urrunetik hurbilera ekarri nahi du eta horretarako kamera mugitzeko teknika erabiltzen du (erakusleak eta keinuak erabiliz) kontakizuna mugituz eta etxe berezia, bakana, aurkezteko. Horrez gain, jartzen dira ezkerrean antagonistak eta eskuinean protagonista edo biktima, ekintzarako prestatuz.

(26) Etxe horretan **[ezkerrera begiratu]** bizi dira bi andre, ama eta alaba eta hauen morroia, mutil gaztea. Mutil **[eskumara begiratu]** honek etxeko alaba **[ezkerrera begiratu]** maite du. (Amestoy eta Martinez, 1992)

### 3.3.4. *Bolumena eta espazioa*

Bolumenarekin istorioaren kontakizuna entzuleari urrundu edo hurbildu dakioke, baita urrunetik hurbilera doala adierazi ere.

(27) adibidean, pertsonaiak hurbilduz doaz eta, ondorioz, antxumeek egindako soinua baxuago egingo da hasieran eta gero eta altuago egingo da amaierara heldu arte.

(27) Eta antxume bizardun handia iritsi zen, bere bizar handiaz eta adar handiez, apatxez hots hau egitenTzuela...

tinkulun-tankulun TINKULUN-TANKULUN TINKULUN-TANKULUN  
(González eta Fernández, 2014)

Pertsonaia hurbiletik urrunera doala adierazteko kontrara egingo da. Hau da, ozenago irakurri eta urundu ahala bolumena gero eta baxuago egin.

#### 4. Laburpena eta etorkizuneko lana

Gure lanaren ekarpen nagusia da komunikazio-estrategien adibideak ematea irakurketan pertsonaien izaera eta emozioak ezaugarritzeko eta kontaketa eszenan kokatzeko, irakasleek irakurketan hizkuntza-forma ezberdinen balio pragmatikoa erabil dezaten. Horrez gain, estrategiak erabiltzen hasteko markaketa-sistema bat ere proposatu dugu. Horrela, irakurleak testua aurretiaz lantzeko modua izango luke eta ipuinaren irakurketa esanguratsua egingo luke.

Gure ustez interesgarria litzateke irakasleentzat eredu gisa hurrengo lanetan ipuin osoak prestatzea eta horien adibide multimodalak ematea, edublogetan, adibidez. Horrela, markaketa-sistema eta haren gauzatzea bere osotasunean aztertu eta entzun/ikusi ahal izateko. Horrez gain, beharrezko ikusten dugu bestelako komunikazio-estrategia eta ipuin gehiago lantzea, inbentario aberatsagoa lortzeko.

#### Bibliografia

- Almagro, I. eta Mardones, M. (2012): *Txanogorritxoren eskularruak*, Txalaparta, Tafalla.
- Amestoy, K. eta Martinez B. (1992): *Behin bazen*, Elkar, Donostia.
- Ansorena, J.I. (2010): «ESKARA LA KAKATUA? Ahozkoatasuna eta aditasuna», in Mintzola Fundazioa eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarte (arg.), *Ahoa bete hots. Ahozkoatasuna kulturean, eguneroko jardun berezitueta eta haur munduan*, Lanku Bertso Zerbitzuak SL, Andoain, 11-22, <<https://www.mintzola.eus/eu/files/ahozko-elkargunea/ahoa-bete-hots-2010-liburua/view>>.
- Añorga, P. (2006): «Barruan dugun ura kanporatu behar dugu, ez itozteko», *Argia*, **29**, <[http://www.argia.eus/albiste/pello-anorga-barruan-dugun-ura-kanporatu-behar-dugu-ez-itozteko?botua=0&albiste\\_id=26816](http://www.argia.eus/albiste/pello-anorga-barruan-dugun-ura-kanporatu-behar-dugu-ez-itozteko?botua=0&albiste_id=26816)> webgunetik jasoa.
- Arratibel, J.; Zubizarreta, P. eta Olarriaga, A. (2001): *Txomin Ipurdi*, Erein, Donostia.
- Delvaux, N. eta de Petigny, A. (2013): *Kamile, abenturaz abentura*, Ttartalo, Donostia.
- Eizagirre, P. (2015): «Jendaurreko irakurketa», <<http://aittu.net/>> webgunetik jasoa.
- Escandell, M. V. (1996): *Introducción a la pragmática*, Editorial Ariel, Bartzelona.
- Gaminde, I.; Aurrekoetxea, G.; Etxebarria, A.; Garay, U. eta Romero, A. (2014): *Ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak. Laguntzarako materiala: teoria eta praktika*, UPV/EHU, Bilbo.
- García, A.; Mazali, G.; Noriega, F. eta Peinador, A. (2013): *Ipuintxo bat gauero*, Aizkorri, Bilbo.
- García-Arriola E.A. eta Iruskieta M. (2016): «Intentziozko irakurketa ozena: lehen urratsak», *Tantak*, **28 (2)**, 85-110.
- Glitz, A. eta Sönnichsen, I. (2005): *Munstro bat ohe azpian*, Ttartalo, Donostia.

- Gonzalez, O. eta Fernandez, F. (2003): *Antxume bizarduna*, Kalandraka, Pontevedra.
- Herrero, J. (2006): *Teorías de la pragmática, de lingüística textual y de análisis del discurso*, Ediciones de la Universidad Castilla-La Mancha, Cuenca.
- Igerabide, J.K. (2007): «Haurra eta ahozketasuna», in I. Idiazabal eta I.M. García (koor.), *Ahozko hizkuntza: euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*, EHUko Euskara Errektoreordetzaren Sare Argitalpena, 225-241, <<https://ikasmaterialak.ehu.eus/hezkuntza/ahozko-hizkuntza>>.
- , (2007): *Zaku bete hauts: euskal ipuin zaharrak*, Aizkorri, Bilbo.
- Irusta, A. (2014): *Euskal Herriko kondaira onenak*, Susaeta, Madril.
- Jadoul, É. (2011): *Non zaude, Ilargi?*, Denonartean, Berriozar.
- Mendez, A.R. (2001): *Manex eta Piarres*, Kalandraka, Pontevedra.
- Moreno, V. (2007): *Ikasleak irakurzaletzen ahotsa, sentimendua eta sormena erabiliz*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua, Nafarroa.
- Olmos, R. eta Livan, P. (2013): *Ez da munduan min handiagoa ematen duenik*, Txalaparta, Tafalla.
- Sarrionandia, J. (2008): *Munduko zazpi herrialdeetako ipuinak*, Pamiela, Iruñea.
- Sauter, D.A.; Eisner, F.; Ekman, P. & Scott, S.K. (2010): «Cross-cultural recognition of basic emotions through nonverbal emotional vocalizations», *Proceedings of the National Academy of Sciences*, **107(6)**, 2.408-2.412.
- Schubert, I. eta Schubert, D. (2007): *Pirata zaharra*, Ttartalo, Donostia.
- Susaeta (2012): *Ipuin klasikoak*, Susaeta, Madril.
- Van den Abeele, V. eta Dubois, C.K. (2009): *Amonak Alzhei... zer?*, Ttartalo, Donostia.
- Waddel, M. eta Firth, B. (1999): *Oso ondo, Hartz Txiki*, Hiria, Donostia.

